

UR-KONTSUMOA



- ⇒ Ur asko eta asko erabiltzen dugu ia ohartu gabe: hortzak garbitzean, dutxatzean, janaria prestatzean eta abar.
- ⇒ Inoiz pentsatu duzue zenbat litro ur gastatzen dugun egun bakoitzean?
- ⇒ Familiakoei galdera batzuk egingo dizkiezue orokorrean zuen etxean uraren kontsumo ohiturak zein diren jakiteko.
- ⇒ Zerrendatu etxeko uraren erabilera eta kalkula ezazue zenbat ur behar den erabilera bakoitzerako.
- ⇒ Lehen zutabea, idatzi ura gastatzea dakarten jarduera guztiak: hala nola, dutxatzea, hortzak garbitzea, komuneko tanga hustea...
- ⇒ Bigarren zutabea, adierazi zenbat aldiz egiten duzuen etxean jarduera horietako bakoitza.
- ⇒ Idatzi hirugarren zutabea zenbat ur gastatzen den jarduera horietako bakoitzean. Horretarako, hurrengo orrialdeko taula erabil dezakezue erreferentzia gisa, uraren gutxi gorabeherako kontsumoa kalkulatzeko.

Jarduerak	ur gastua (litrotan)		Zenbat aldiz egunero?		Litro guztira
		x		=	



1. Egin batezbestekoa eta kalkulatu zenbat litro kontsumitzen dituzuen egunero.

Zenbat?

litro

UR-KONTSUMOA

URAREN GUTXI GORABEHERAKO KONTSUMO-TAULA	
JARDUERA	KONTSUMOA
Garbigailua erabiltzea	80L
Ontzi-garbigailua erabiltzea	25L
Platerak eskuz garbitzea	100L
Bainatzea	200L
Hortzak garbitzea (iturria irekita)	30L
Hortzak garbitzea (iturria itxita)	1,5L
Eskuak garbitzea	1,5L
Komuneko tanga hustea	12L
Komuneko tangaren 1/2 hustea	6L
Etxe txikia garbitzea	15L
Etxe handia garbitzea	40L
5 minutuko dutxa	50L
10 minutuko dutxa	100L
Bizarra moztea (iturria irekita)	50L
Bizarra moztea (iturria itxita)	3L
Autoa mangeraz garbitzea	500L
Etxekeko landareak ureztatzea	5-15L
Ura edatea	1L


Taula egiteko informazioa honako iturri honetatik atera dugu:

<http://agrega.hezkuntza.net/repositorio/04032011/6e/es-eu>


2. Zer jardueratan gastatzen da ur gehien? _____
3. Zuen ustez, zuen ur kontsumoa handia da? Zergatik? _____

4. Zuen ustez, murriztu daiteke zuen ur kontsumoa? Nola egingo zenukete? Zein da zuen jarrera? _____


5. Guztien emaitzak elkartu ondoren, ondorioak atera itzazue eta aipagarrienak komentatu. _____



Uraren kontsumoa jasagarria da



Hobetu behar dugu



Kontsumo jasanezina

Baina ura ez da bakarrik etxean erabiltzen, beste ekintza batzuetan ere derrigorrezkoa da.

UR-KONTSUMOA



6. Galdetegia.

- ⇒ Aukera ezazue honako leku batean lan egiten duen herritarren bat: igerilekua, kiroldegia lorategia, liburutegia, anbulatorioa, zaharren egoitza, Soreasu...
- ⇒ Taldeka edo gelaka banatuta instalakuntza horietako ur kontsumoaz informazioa jaso. Horretarako badituzue galdera batzuk hemen azpian, dagokiona aukeratu edo berriak asmatu.

IZENA: _____

LEKUA: _____

- Ba al dakizu zenbat ur gastatzen den zure lanean?
 Bai, zenbat gutxi gorabehera _____
 Ez
- Kaleak garbitzeko urik erabiltzen da Azpeitian?
 Bai Ez
- Kaleak garbitzeko, lorategiak ureztatzeko, suhiltzaileen lanetan...ur edangaria erabiltzen da?
 Bai Ez
- Non gastatzen da ur gehien? _____
- Igerilekuan "zenbat putzu" daude? _____
- Putzu bakoitzean zenbat litro?
 Bai Ez
- Igerilekuko ur guztia berritzen da?
 Bai Ez
- Zure lanlekuan, ba al dago ura aurrezteko sistema berezirik?
 Bai Ez
- Zein? _____
- Ez badago, zergatik? _____
- Azkeneko urteotan uraren kontsumoa... handitu, gutxitu edo bere horretan jarraitzen du?
 Handitu Gutxitu Bere horretan jarraitzen du
- Zure lanlekuan urarekin zerikusia duen arazoren bat, edo zure esku egongo balitz, gauzak hobetzeko egingo zenukeen zerbait aipatu:

- Jarri zure galderak _____

